

## Gaur 120 urte jaio zen abertzaleon aita, gidaria eta eredua (2)

Mikel Zuazabeitia

*Egin*, 1985-01-26.

– *Sabino Aranak instrumentoak jarri zituela esan duzu, Euskadiren independentziaren jomugara iristeko. Helburu eraginkor eta bultzatzaile hau gogoan harturik, nola ikusten duzu Eusko Alderdi Jeltzaleak, PSOErekin egin berria duen ituna edo paktoa? Euskadi askatua, batua eta birreuskaldundua lortzeko al da itun hau? Alderdiak bere azken helburua ba du, noski, eta ematen dituen urratsak hara iristeko izango direla pentsatu behar da.*

– Horixe, baina bideak ez ditugu, agian, batzuk eta besteok berdin ikusten. Ni Alderdikoa naiz, hala zen nire aita baita aitona ere. Nik, atzera begiratu eta, ez dut karlistarik ikusi nire familian oraindik. Abertzale gara, eta guk askatasuna nahi dugu, eta Eusko Alderdi Jeltzaleak ere bere idatzi guztietan hori aitortzen du, eta horrela jokatu du, nik uste, askotan. Esan dezagun Jose Antonio Agirrek, abertzalea, askatasuna nahi zuena, bide horretan barrena egin zuela egin zuen oro. Politikan jokatzek, ordea, badakar nahiko lan eta zailtasun berarekin. Batetik, badakizu non gauden sartuak. Gu Kaledonia Berrian egongo bagina orain, irla batetan, guretzako errazago izango litzateke beste era batera egitea gauzak. Baina Erdi Aroan gertatu zenaren antzeko zerbait gertatzen ari da gaur. Badakizu orduan, sasoi batetan, Nafarroa barruan egon ginela denok elkaturik, baina gero Estatu berriak sortzen hasi zirenean, 1.500 urte inguruan, bata bestea jaten hasi zen, zatitzen, eta horrela.

– *Politika dela eta ez dela, ez al da helburua ahortzi eta alde batera utziko?*

– Ez. Gaur ere borroka berean segitzen dugu, eta politika egin nahi duenak, kontuan eduki behar du non dagoen, zein zailtasun dituen inguruan, nola gaindi daitezkeen, etabar. Ni ez naiz politikoa eta ez naiz gehiegi sartzen honetan, egia esan; nik nire idazkera dut eta horrekin zerbitza diezaiokedala. Herriari uste dut. Baina aldeak ikusten ditut politikarien artean, eta ez ditugu gauzak denok berdin ikusten. Orduan, uste dut, Eusko Alderdi Jeltzalekoa egitan eta zinez dena (hemen ere, beste partiduetan bezala, denetarik dago; egongo dira karlistak, eta neokarlistak, eta jende mota askotakoa) politika bidez egin behar duela lan, hala irakatsi eta erakutsi digu, behintzat, gure Alderdiko jendeak, bai Jose Antonio Agirrek, bai Leizaolak eta bai Sabino Aranak berak bere azkenaldiko garaian hala jokatu zuen. Politikan, zure aurreratze lana egokitzen edo adekuatzen hasten zara, inguruko zailtasunen arauera, eta jarrera hau bidezkotzat jotzen dut gaur. Ni ere, gazteago nintzenean, erradikalagoa nintzen, eta Sabino Arana ere bere lehen etapan oso erradikala zen, gero, ordea, beste bide batzu urratzen hasi zen: ikusi besterik ez dago "Bizkaya por su Independencia eta Larrazabaleko Hitzaldia", batetik, eta bere azkeneko eskutitzak, bestetik.

Guk, partidu bezala, jipoi asko hartu dugu. Jose Antonio Agirrek berak ere egin zituenak, Franco bota eta hona aske etortzeko asmotan egin zituen, baina ez zuen lortu.

Hori da ba: gauzak nola egin? Zer da hobe, gaur jotake gerra bizian hastea ala eman dugun pausoa onartzea? Bere baldintzekin, noski, baina aurrerabiderantz ezer urratu gabe? Garaikoetxeak hainbeste gorde duen zerbait ala, bestela, saldukeria batetan sartu, edo, berriro ere, Madrilén mende jarri? Hor daude bi aukera, pakezkoak biak.

### **Gure Herria defenditu besterik ez da egin**

– *Nola ikusten duzu, abertzaletasunaren ikuspegiz, Herri Batasuna?*

– Nik esango nuke hortxe dagoela aukera hori ere, indarrarena, alegia, ETAk edo Herri Batasunak pentsatzen dute momentu hau guztiz egokia dela ejerzito eta poliziaren aurka borroka armatua egiteko. Pentsaera eta jokaera hauek herriarentzat aberatsak direla uste dut, eta ez dugula ametsik egin behar abertzale guztiok berdin pentsatzera etorriko garenik. Batzuk, adinagatik ez gatoz ados; eta beste batzu, berriz, pragmatismoz, bide honetatik ez garela urruti helduko pentsatuz, eta bide politikoak urratu behar direla, eta ez doala hain gaizki, egin direnak ontzat hartuz... Neurria nik ez dut jarriko, bakoitzak berea jarriko da, baina nik uste dut EAJk orain arte eraman duen bidea, Garaikoetxearen bitartez, batez ere, nahiko ona, garbia eta jatorra izan dela, aukera horren bidean, noski. Gero, horren aurrean borroka armatuaren bidea hartu dutenek, horiek beren erresposabilitatea dute, eta beren asmoa. Gainera, hemen beste puntu bat dakusat garbi: lehen aipatu dugu sozial arazoa. Arazo honek asko eboluzionatu du Sabinotik hona, eta gaur borroka armatua ez da borroka armatua bakarrik, eta borroka paketsuaren diferentziaz, badu sozial arazoaren sentimena ere, eta langileriaren aurrerapena nahi du, eta askatasuna, eta, behar bada, internazional diren ideologiak sortzen dira, eta hauek asko konplexatzen dute gure arazoa. Oso konplexu bihurtu da gure euskal problema gaur. Gure mutiko garaian, karlistak, sozialistak eta nazionalistak ziren denak. Gaur, ordea, konplexitate haundia sortu da, eta norberak egin behar du bere aukera. Gainera, zergatik sortu da borroka armatua? Nondik dator horretarako eragina? Atzera joaten bagara, gure herria defenditu besterik ez dela egin ikusiko dugu, erantzun besterik ez duela egin, eta Franco hil eta gero ez dela egitazko aldaketarik etorri. Arrazoi hauek kontutan behintzat hartu behar dira, eta ez, besterik gabe, gaizkiletzat hartu hala borrokatzen ari direnak. Sinpleegia da honela juzkatzea.

Orain, beste abertzale batek esan dezake ea komeni den azken muturreraino gauza eramatea, eta ez ote den hobe pakebidea har eta honela aurrerapen batzu lortzea. Adibidez, euskara arloan, eta unibertsitatean, eta European sartzean, han toki bat herri bezala eduki dezagun, etabar. Eta aztertu zein bide den hoberena herriaren aurrerapenerako. Dena dela, abertzaleen arteko bi pentsaera eta jokabide hauek onartu behar direla uste dut. Nik bi bideak errespetatzen ditut, Alderdian egon arren, Alderdiak alegia, gauzak behar bezala egiten baditu. Ni ez naiz beste asko bezala, ni Alderdiaren jokabideen kritikoa naiz, eta gauzak ongi egiten ez baditu, kritikatu egiten ditut, baina ez kanpoan, barruan baizik.

### **Gernikako Estatutoaz ez gara konformatzen**

– *Gernikako Estatutoa nahikoa dela uste al duzu?*

– Ez, ez, badakigu ez dela gure gogoia betetzen duena, eta Garaikoetxeak ere ez du nahikoa ikusten, eta Alderdiko jenderik gehienak ere ez, baina hau Historia politikan gertatzen diren pausoetako bat da, eta ez dut uste inoiz gure historian zehar gaur adinako loturarik izan dugunik elkarrekin instituzionalki, ez euskararen batasunik. Estatutoaren bokazioa, nahiz eta orain hiru probintziatara mugatu, Euskal Herri osoarena da. Urrutiko jomuga hori ez dugu galdu, noski, baina politikak beste bide batzu agintzen dizkigu, eta ezin ditugu gauzak guk nahi bezala egin. Euskal Herriak ez du inoiz lortu instituzio bakar bat eta hizkuntza administratibo komun bat, orokor bat. Orduan, erraza da guztion batasuna etabar, baina belaunaldi batean hori lortzea, ametsa da. Ameslari behar da bat, baina egunoroko urratsak ziur joaz. Irujok esaten zuena: nola nahi duzue orain Nafarroa zuenganatzea, 400 urteko historiaz banaturik egonik? Hutsak egingo ditugu, noski, baina indarren bat agertzen denean, Herri Batasunak adibidez, beste modeloren bat lortzeko biderik erakusten al du?

– *Zer pentsatzen duzu Herri Batasunaren helburuaz?*

– Ni konforme nago Herri Batasunaren helburuaz, baina ez diot ikusten aurrera biderik, batez ere gaur ibili dezakegun biderik. Halere, nik errespetoz ikusten ditut besteren ideiak, eta nireak errespetatuta ditzatela besteek, nahi nuke. Esango dizut behin zer gertatu zitzaidan, han, bestaldean bizi nintzela, Donibaneko gure etxean asko egondako gazte batekin. (Ez zen Herri Batasuneko, talde espanyolista batekoa baizik). Ba, behin topo egin nuen berarekin Baionako hiribusean, eta hark bere puntuak eta nik neureak, hala gentozen; eta halako batean, hau esan nion: erantzun al didazu benetan? Bai. Jakin nahi nuke, zure ideiak irabaziko balu, errespetatuko ote zenukeen zuk nire ideia? Erantzuniezadazu egia, lagun bezala. Ez, erantzun zidan, nik ez. Begirunea beharrezkoa zaigula uste dut, eta ez goaz inora hori gabe. Karlista baldin bada, izan dadila, baina ez dezala Alderdiko bezala joka; eta neokarlista baldin bada, joan dadila UCD-rekin edo nahi duenarekin, baina ez Alderdian sartu eta neokarlista bezala jokatu. Gutxienez eskatzen diodana, hau da, bere bidetik eman dezala aurpegia.

– *Aurrera ala atzera, nora ari da Euskal Herria?*

– Nik aurrerako ari dela ikusten dut. Gehiago esango dizut, partidu abertzale bakarra zenetik honaino, nahiz eta saminez bizi, herria konplexitate hau asumituz doala, eta hau izango dela bidea kanpotik etorri den jendea giro abertzalean sartzeko ere. Lehen ez zegoen erraztasunik dago horretarako gaur.

### **Abertzale ekintzaileak behar dira orain ere**

– *Sabino Aranarengana itzuliz, bera izan al zen Euskal Aberriaren arazoaz jabetu zen lehena?*

– Ez, Sabino baino lehenago ere izan zen gai horretaz konturatu eta arduratu zenik, Larramendi, Chao, etabar. Larramendik garbi ikusi zuen Euskal Herria osorik, eta bere izkribuetan aipatu zuen sarritan arazoa, gu euskaldunak eta gure herria Euskal Herria zela, alegia, eta bestea Espainia. Gero, XIX gizaldian Chao izan genuen Zuberoan, karlistada garaian; honek ere, dudarik gabe, ezagutu zuen euskaldunon egoera, hiltorian zegoela, eta berau berpiztu beharra. Baina gauza bat da ikustea –eta ikusi zuten–, eta bestea, ikusi, eta lema jarri "Euskadi da euskotarren aberria", eta aberriaren askatasuna eta berpizterako lan egitea. Zein dira gure ezaugarriak? Hizkuntza. Eta euskara ikasi, eta landu, izendegi, hiztegi eta gramatika egiteraino. Eta euskararen batasunerako oinarriak ezarri, eta kontzientziatu jendea, ikas zezan, eta euskara galtzen bazen Aberria ere harekin batera galduko zela, etabar, etabar. Egin egin behar dira hauek, e? Hogei urterekin, inoren laguntzarik gabe, irla batean bezain bakarti, eragozpen, eraso eta errepresio pean. Eta ikurriña asmatu ere partidu hor sortu, eta hainbat eta hainbat lan nekatu, gaisotu, eta gazterik hil arte 38 urterekin. Nork daki zer ez zuen egingo luzaz bizi izan balitz! Sabinoren azken hamar urteak errepika ezinak dira. Bazirudien herriaren arlo guztiak bete behar zituela: erlijio, soziologia, hizkuntza, politika, prentsa, denetan zen aurrelari eta ekintzaile porrokatu. Bera da, bai, gure eredu! Lagun txepel eta epel askorekin tokatu zitzaion lan egitea, eta batetik eta bestetik aitzaki ugari entzuna. "Larrazabaleko Hitzaldia" bota zuenean ere, zer? Bere lagunik minenek bakarrik utzi zuten eta alde egin, anaia Luisek ezik. Hitz konprometigarriak, oso zorrotzak baitziren hari ahotik zerizkionak, eta entzun eta egon ezin zuen, ekin egin behar zitzaion aberriaren berpizkunde lanari, eta orduan ere, gaur bezala, zaila zen jendea mugitzea. Inguru horretan kokatu behar da, beraz. Sabinoren etengabeko militantziazko jarrera eta konpromisoa, bere bizia emateko prest zegoelarik, Larrazabalen esan zuenez: "Ez dut nahi ezer niretzako, den dena Bizkaiarentzako baizik; oraintxe bereon, eta ez behin bakarrik, ehun aldiz jarriko nuke ezpatapean neure lepoa, neure heriotza honen bidez neure aberria berpiztu egingo litzatekeela baneki, berdin nire izenaren berri erabat galduko balitz ere". Hona hemen gizon haundi haren adorea eta bihotza.

### **Agur, Hondarribitik, Euskal Herri osoari**

Bi ordu luzez ihardun dugu elkarrizketa mamitsu eta gozoan, abertzaletasunaren iturri garbiko uraren egarriz. Hemen gaude Martinen etxeko balkoitik, Bidasoaren ertz ertzetik, Hendaia eta Miarritze aldera begira, Larhun eta Nafarroko mendiak ere begibistan ditugularik. Euskal Herriaren etorkizunari buruz ere hainbat gauza esan dugu. Kezka eta arduraren gainetik ordea, itxaropen biziaren hazia ere erein eta erne dela dakusagu, eta Sabino Aranak amestu zuen askatasun osoaren landarea ere indartzen ari dela, oztopo guztiak gaindituz.

Mila esker Martin Ugaldere bere eritzia zabal-zabal eta ezer izkutatu gabe agertzeko prest egon zaigulako. Abertzale beterano, beti gazte eta gaurko, guztienganako begirunez agertu zaigun honi, eskerrik asko berriro.